

IKAZKINA MENDIAN



Gazterik asi nuen gogoa alatzen,
Bakezko estatua zein ote zaiteken;
Ez bainuen kausitzen egonez errian,
Ortako jarri nintzen ikazkin mendian.

Urrikarri nautenak dira enganatzen,
Urrikgarriago ditut ezagutzen,
Bake osoa nun da ekien artian?
Ni artaz gozatzen naiz ikazkin mendian.

Jaun onari diozkat eskerrak biurtu,
Lagun zoro etarik bainan aldaratu,
Beude beren atsegin galkorren erdian!
Prestuki biziko naiz ikazkin mendian.

Mendiko ur chirripak doaz erasian;
Chori, chocho, eperrek.... kantatzen sasian;
Urso iiztariak arbolen gainian....
Nola triste naiteke ikazkin mendian?

Igandetan mezara menditik naiz jauzten,
Jainkoaren manua ola ez dut austen,
Egun ura gozatuz aaiden erdian;
Gero aste guzia ikazkin mendian.

Zapetain, sastre, arotz, zurgin eta argin,
Ek irian lanean igandearrekin;

Asteleena besta, gero min burian!
Ni zuur eta sano ikazkin mendian!

Gizon gazte, lorios, merkatukaria,
Jan edan onen zale eta jokairia,
Ontasunak orrela goaten direnian,
Erranen duk: Obe zen ikazkin mendian!

Ene anaia goan zen Amerikan barna;
Laster zerbeit eginik uztekotan lana,
Egun bezein aberats zen sortu zenian!
Obe lukela dio ikazkin mendian.

Lili arrosa ainitz bada bazterretan,
Gazteen choragarri erri guzietan;
Ez naute enganatuni orai artian;
Lorerik gabe nago ikazkin mendian.

Igande bestetan dut garbitzen larrua,
Plazara naiz agertzen ongi apaindua;
Arrai dut arpegia, itz onak miian,
Nork ezagut nagola ikazkin mendian?

Osagarria banu zonbeit urtez ola,
Zaartzean utz niro mendiko etchola;
Ene molsa luzea goritu denian,
Zertako egonen naiz ikazkin mendian!
